

2020ko uda sasoiaren balorazioa

Valoración de la
temporada estival
de 2020

*Información en español seguida de la de euskera

COVID-19ak eragindako egoeragatik uda sasoia ere ez-ohikoa izango zela aurreikus zitekeen. Egoera aldakorrak ahalbidetzen zuen neurrian egin zituen aurreikuspenak eta osatu zuen uda sasoirako plangintza Debako udalak. Uda sasoia ofizialki amaitu berri, egindako aurreikuspenak neurri handian bete dira, beraz, balorazioa positiboa da.

Balorazioa baikorra da herritarrek jarrera ona izan dutelako eta orokorean emandako jarraibideak bete dituztelako. Eta arlo desberdinatan lanean aritu diren pertsonek aurreikusitako protokoloak jarraitu dituztelako eta euren lana ongi bete dutelako.

Hondartza

Erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin hainbat neurri hartu ziren hondartza denboraldia hasi aurretik, eragileekin elkarbanatu zirenak. Besteak beste, edukiera kontrolatzea, espazioa egoki kudeatzea eta horren ondorioz ahalik eta jende gehienak hondartza erabil zezan bermatzeko helburuarekin.

Aurreko urteekiko hondartzaren erabilera arauak desberdinak izan dira, hortaz. Erabilera arauak jasotzen dituzten informazio panelak jarri dira eta hondartzainak egon dira aurten, emandako irizpideak betetzen zirela ziurtatzeko. Hondartza dinamikoa izatea sustatu da. Eguzkitakoak erabiltzeko eta taldeko kirolak egiteko aukerarik ez da egon aurten. Eguzkitako erabilera ez baimentzeagatik kexa batzuk jaso ditu udalak, baina hartutako erabakiari eutsi dio ikusi duelako modu horretan erabilera dinamikoagoa dela (jende gehiagok dauka horrela hondartzan egoteko aukera) eta lekua hobe kudeatzen delako (pertsonen arteko tartea uztea erraztuz).

Edukieragatik bi aldiz bakarrik itxi behar izan da hondartza: uztailaren 17an eta irailaren 13an. Sorosleek eta hondartzainek ongi zekiten zer egin behar zuten eta aurreikusi bezala kudeatu zuten egoera, udaltzaingoarekin koordinatuta.

Sorosleek, aurten, azken urteotan baino erreskate gehiago egin behar izan dituzte Laparin, uda honetan itsasoa bizi egon baita. Eskertzekoa da sorosleek eta hondartzainek egin duten lan ona.

Beste bi egunetan, abuztuaren 18an eta 19an, bainua debekatu da Santiago eta Lapariko hondartzetan, itsasoaren urak araudian ezarritako kalitate-irizpide mikrobiologikoak puntualki ez betetzeagatik. Debako udalak Osasun Sailari kutsaduraren arrazoia eta hori konpontzeko zein neurri hartu behar zituen azaltzeko eskatu zion.

Garbitasuna areagotu egin da aurten, birusaren hedapena saihesteko helburuarekin. Egunean 3-4 aldiz garbitu dira komunak eta jendeak izan duen errespetuari esker, garbi mantendu dira.

Hondartzako ordenantzak baimentzen dituen bi surf eskolen plazak, aurten bete dira lehendabizikoz. Udalak antolatutako Uda Kirola programa martxan jarri zen ekainean eta hiru kirol aukera eskaini dira aurten: surfa, body board eta arraun surfa. Oso harrera ona izaten du eta, aurten ere, hala izan da. 448 gaztek parte hartu dute, iaz baino %21 gehiago.

Heliportua margotu da eskoilera inguruan, erreskateetako zerbitzuei lana errazteko helburuarekin.

Hondartza denboraldia amaituta ere, irailaren amaiera arte dutxa guztiak utziko dira. Urritik aurrera, berriz, 3 dutxa jarriko dira urte osoan hondartza erabiltzen dutenentzat. Udazkenean kabinak berritu egingo dira.

Inguruko herrietatik jende asko etorri da Debako hondartzetara eta albo ondorioak izan ditu horrek. Hondartzan ez bezala, egun batzuetan jende pilaketak egon dira asteburueta azken orduko trenetan. Udalaren eskumena ez bada ere, Deban gertatzen ari zenaren inguruan hitz egiteko harremana egin zuen udalak Eusko Trenbide Sareko arduradunekin eta neurriak haritztaten eskatu zitzaien.

Pozik gaude egindako kudeaketaz, kontuan hartuta zein baliabide ditugun udalek hondartzen kudeaketarako. Behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu behar dituela hainbat zerbitzu udalei zama arintzeko. GFaren eta udalen arteko mahaia berandu baino lehen osatu behar da.

Kultura eta festak

Uda hasi aurretik, osasun egoera aintzat hartuta, herrietako eta auzoetako festak bertan behera uztea erabaki zen Deban bezala, gainontzeko herrietan. Hori horrela izanda ere, egoerak ahalbidetzen zuen formatuetara egokitutako kultura ekimenak egin dira. Debako udalak, pandemiak zigortutako kulturaren arloa laguntzeko apustua egin du horrela.

Edukiera mugatuak, eskuak garbitzeko gela eta maskarak lagun hainbat kultur ekitaldi egin ditugu udan zehar. Kontingentzia planak prestatu dira horretarako eta horiek beteta, ez da arazo esanguratsurik sortu.

Honela bada, lekua aldatuta egin da Euskara sailak bideratzen duen ITURRI ONDOAN ekimenaren zazpigarren edizioa. Kulturak euskaraz izateko, euskaraz bizitzeko motibazioa piz dezakeela konbentzituta, kanpoko erreferentzia berriak ematea da, batetik, egitasmo honen helburua; baina, horrez gain, herritarrekin kultur proiektuak garatuz, haien artean euskarazko harremanak bideratzea, euskarazko sare berriak sortuz eta ehunduz.

6 ekitaldi izan ditugu, aurten, ITURRI ONDOAN. Beti bezala, diziplina desberdinak sartzen saiatu gara: antzerkia, dantza, bertsoa, musika... 6 ekitaldi horietatik 2 herritarrekin garatu ditugu. BEGIRADAK (hasiera-hasieratik sortutako ekimena eta oraindik indartsu segitzen duena) eta ITURRIAN JAZZ berria, Jazzezblai taldearekin izandako elkarlanetik sortua.

Ikus-entzule eta parte-hartzale guztien osasuna zaintzeko helburuarekin protokoloa osatu zen eta horren baitan egin da lan. Boluntarioek protokoloan zehaztutako guztiak bete dituzte: eskularruak, maskarak, txalekoak eta eskuak garbitzeko hidrogela.

Abuztuan, 37. udako musikaldia ere antolatu da. Hasieran programatutako kontzertuak aldatu egin behar izan dira eta gertuko musikariak gonbidatu. Elizan segurtasun neurri guztiak hartuta egin dira hiru kontzertuak, arazorik gabe. Edukiera murriztu behar izateak nahi zuen jende guztiak gonbidapena ez lortzea eragin du.

Turismoa

Turismo bulegoa bera eta bere jarduna moldatu egin behar izan dira osasun neurriak betetzeko.

Bisitari kopurua erabat jaitsi da aurten, izan ere turismoa izan da pandemiaren ondorioz kaltetuen suertatu den alorretako bat. Esaterako, aurtengo uztailean, 1.622 bisitari zenbatu dira turismo bulegoan. Hilabete berean 2019an, 4.441 eta 2018an 4954. Abuztuan, beriz, aurten 1.734, 2019an 6.947 eta 2018an 7.042. %78,8 jaitsi da kopurua.

Sektoreko eragileekin egindako harremanetan jakinarazi dutenez, ireki dutenek ondo aritu dira, alojamendu gehienetan okupazio altua izan dute, azken orduko erreserbak izan dira baina egonaldiak ere luzeagoak egin dituzte.

Promozio ekintza gehienak Geoparkearen eta Debabarreneko turismo mahaiarekin batera egiten dira. Aurtengo udan bost bideo egin dira Debabarrena eskualdea promozionatzeko.

“Bizi uda Debabarrenean” egitasmoa atera dugu. Atxikitutako alojamenduek %20-ko deskontuak eskaintzeko aukera izan dute Geoparkeko bisita gidatuetan eta eskualdeko museoetako sarrerak doan.

Eskualdeko ibilbideen esku-orri berria argitaratu da. Bestalde, euskadi.eus web orriko “2020ko udara osoko planak” egitasmoan udaz gozatzeko 120 plan proposatzen dira eta eskaintza horretan 4 proposamen garatu ditugu: Debabarrena familiar, Euskal Kostaldeko Geoparkea oinez Zumaiatik Debara, Debabarreneko talaiak, Bizi abentura Debabarrenean.

“Gipuzkoa Passport” Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratako egitasmoan ere Santa Katalina, Santa Maria Eliza eta gure kostaldeko flyscha azaltzen dira pasaportean datozen 50 proposamenen artean. Pasaporteak turismo bulegoetan banatu dira eta nahiko harrera ona izan du.

Flysch and karst bisita gidatuen programari eutsi zaio eta uztailean adibidez, emaitza onak izan ditu. Dendarik gabe Geoparkea da Debako udalak turismoaren alorrean duen apusturik garrantzitsuena.

Segurtasuna

Uda hasi aurretik udalzaingoan egindako aurreikuspenetan hainbat arlotan arazoak egon zitezkeela aurreikusi zen. Uda amaituta, aurreikusi baino hobe igaro dela sasoia esan daiteke. Jende pilaketak ekiditea izan da egiteko bat, kalean zein ostalaritzan. Orokorean, jendeak errespetatu egin ditu osasun agintariek emandako jarraibideak.

Udalak, ostalariekin batera landu zuen hauei zegokien atala. Halaber, herritarrei segurtasun neurriak gogorarazteko kartelak banatu zituen udalerriko establezimenduetan eta ostalariei gutuna bidali zien lagun zezaten ezarritako segurtasun irizpideak betetzen.

Uda hasieran, egunen batean pertsona talderen bat batu da kalean, edan, musika jarri eta festa egiteko. Gutxi izan dira eta ez da arazo berezirik sortu.

San Rokeak bertan behera utzi ziren. Ospakizun txikiak egin ziren testuinguru horretan. Salbuespenak salbuespen, herritarrek ongi bete dituzte emandako irizpideak.

Udako hezkuntza-zaintza sarea

Aurtengo udaran urteroko udalekuak antolatzeko aukerarik izan ez bada ere, behar handiena duten haur eta gazteei laguntzeko udako zaintza sarea antolatu du Debako udalak, hezkuntza eta gazteriako eragileekin elkarlanean.

Zaintza sarearen helburua izan da indartze akademikoa, euskararen mintza-praktika eta bestelako aisiaaldi eta kirol ekintzak eskaintzea neska-mutil hauei. Eta jarduna hiru horiek betetzeko helburuarekin banatu da maila bakoitzean.

Datuetara etorrita, 37 neska-mutilek hartu dute parte egitasmoan. Honela banatzen dira: LH1eko 5, LH2ko 6, LH3ko 3, LH4ko 8, LH5eko 6, LH6ko 7 eta DBHko 2.

15 boluntario ibili dira irakasle lanetan: 7 jubilatutako irakasle ohiak dira eta beste 8 aktiboan daudenak edo, beste arlo batzuetan jardun arren, egitasmoan lan egiteko prest agertu diren gazteak.

Koordinazio orokorra udaleko euskara zerbitzuak egin du, Gaztelekuarekin elkarlanean jarduera abiatu ondoren. Orokorrean ondo baloratu da ekimena.

Deban, 2020ko irailaren 17an

La situación generada por la COVID-19 hacía prever que la temporada estival sería también excepcional. El Ayuntamiento de Deba hizo las previsiones en la medida en que la situación cambiante lo permitía y completó la planificación para la temporada estival. Recién finalizada oficialmente la temporada, las previsiones realizadas se han cumplido en gran medida por lo que la valoración es positiva.

La valoración es positiva por la buena disposición de la ciudadanía y el cumplimiento de las pautas dadas en general. Y porque las personas que han trabajado en diferentes áreas han seguido los protocolos previstos y han cumplido de forma adecuada su trabajo.

PLAYA

Con el objetivo de garantizar la salud y la seguridad de las personas usuarias se tomaron una serie de medidas antes del inicio de la temporada de playas, que se compartieron con los agentes sociales. Entre otras cosas, se ha controlado el aforo, para gestionar adecuadamente el espacio y garantizar así que pudiera hacer uso de la playa el mayor número posible de personas.

Para dar a conocer la normativa a aplicar este año se pusieron paneles informativos. Se ha aplicado el modelo de playa dinámica, por lo que no estaban permitidas las sombrillas y la práctica de deportes en grupo. Se han recibido algunas quejas debido a la prohibición del uso de sombrillas, pero el Ayuntamiento ha mantenido la decisión teniendo en cuenta que de esta forma se facilitaban las estancias cortas (dando oportunidad de disfrutar de la playa a un mayor número de personas) y se optimizaba la utilización de la superficie (respetando las distancias de seguridad entre personas).

Sólo se ha tenido que cerrar la playa dos veces por superar el aforo: el 17 de julio y el 12 de septiembre.

Los servicios de socorrismo este año han tenido más trabajo y han realizado más rescates que en años anteriores en Lapari, debido a la mar viva.

Durante los días 18 y 19 de agosto se tuvo que prohibir el baño por la mala calidad del agua. El Ayuntamiento pidió aclaraciones al Departamento de Salud.

Se ha intensificado la limpieza de los baños (3-4 veces al día).

No se han producido aglomeraciones en la playa, pero sí ha habido problemas en el transporte público debido al gran número de personas que se ha desplazado a las playas de Deba. El Ayuntamiento no tiene competencias en este ámbito, pero solicitó a Eusko Trenide Sarea que

remediar este problema para garantizar las salud de las personas usuarias del tren. El equipo de gobierno está satisfecho con el trabajo realizado teniendo en cuenta los recursos con los que cuentan los ayuntamientos para la gestión de las playas. En más de una ocasión hemos reivindicado que la Diputación Foral de Gipuzkoa debe asumir una serie de servicios para aliviar la carga a los ayuntamientos. La mesa entre la DFG y los ayuntamientos debe formarse más pronto que tarde.

Cultura y fiestas

Antes del inicio del verano, teniendo en cuenta la situación sanitaria, se decidió suspender las fiestas de los pueblos y barrios así como en Deba, en el resto de localidades. A pesar de ello, se han llevado a cabo iniciativas culturales adaptadas a los formatos que la situación permite. El Ayuntamiento de Deba apuesta así por apoyar el ámbito de la cultura castigada por la pandemia.

Con aforo limitado, lavado de manos y mascarillas hemos realizado diversos actos culturales durante el verano. Se han elaborado planes de contingencia para ello y su cumplimiento no ha generado problemas significativos.

De este modo se ha celebrado la séptima edición de ITURRI ONDOAN. Este año se han ofrecido 6 actos. Como siempre, hemos intentado introducir diferentes disciplinas: teatro, danza, verso, música... De estos 6 eventos, 2 se han desarrollado con la ciudadanía. BEGIRADAK (iniciativa surgida desde el primer momento y que sigue siendo fuerte) y la novedad ITURRIAN JAZZ, surgido de la colaboración con el grupo Jazzezblai.

En agosto, también se ha organizado la 37. edición del ciclo musical de verano. Los conciertos programados inicialmente han tenido que ser modificados e se ha invitado a artistas de cerca. Se han celebrado los tres conciertos en la iglesia con todas las medidas de seguridad, sin problemas. El hecho de tener que reducir el aforo ha hecho que no toda la gente que quería haya obtenido una invitación.

Turismo

La propia oficina de turismo y su propia forma de trabajo han tenido que ser adaptadas para cumplir con las medidas sanitarias.

El del turismo ha sido uno de los sectores más afectados por la pandemia. Por ejemplo, en julio de este año, se han contabilizado 1.622 visitantes en la oficina de turismo. En el mismo mes en 2019,

4.441 y en 2018 4.954. En agosto, 1.734 este año, 6.947 en 2019 y 7.042 en 2018.

Según se ha podido saber a través de los contactos realizados con los agentes del sector, los que han abierto han obtenido buenos resultados, con una alta ocupación en la mayoría de los alojamientos, con reservas de última hora pero también con estancias más largas.

La mayoría de las acciones promocionales se llevan a cabo junto al Geoparque y la mesa de turismo de Debabarrena. Este verano se han realizado cinco vídeos para promocionar la comarca.

Se han ofrecido numerosas ofertas, como “Bizi uda debabarrenean”, se ha renovado el folleto sobre los paseos de la comarca. Se han ofrecido cuatro planes dentro de 2020ko udara osoroko planak”. En “Gipuzkoa Passport” de la Diputación Foral de Gipuzkoa se han ofrecido las visitas a Santa Catalina, la iglesia Santa María y el flysch. Se han mantenido las visitas guiadas al flysch y el karst y en julio, por ejemplo ha obtenido buenos datos. Sin duda para el Ayuntamiento de Deba la apuesta principal en el ámbito de turismo es el Geoparque.

Seguridad

En las previsiones realizadas en la policía municipal antes del inicio del verano se preveía que podía haber problemas en diferentes áreas. Finalizado el verano, se puede decir que la temporada ha transcurrido mejor de lo previsto. Uno de los cometidos ha sido evitar aglomeraciones, tanto en la calle como en la hostelería. En general, la gente ha respetado las instrucciones dadas por las autoridades sanitarias.

El Ayuntamiento, compartió con el sector de la hostelería lo referente a este ámbito. Asimismo, distribuyó carteles en los establecimientos del municipio recordando las medidas sanitarias y de seguridad a la ciudadanía y envió una carta al sector de la hostelería pidiendo su colaboración en el cumplimiento de los criterios de seguridad establecidos.

A principios de verano, algún día se ha reunido algún grupo de personas en la calle para beber, poner música y hacer fiesta. Han sido pocos y no han surgido mayores problemas.

Después de suspender las fiestas de San Roque se organizaron pequeñas celebraciones, pero salvo contadas excepciones, la ciudadanía ha cumplido bien las directrices establecidas.

Red educativa de cuidados de verano

Este verano no se han podido organizar las colonias anuales, pero el Ayuntamiento de Deba ha organizado una red educativa de cuidados estival para ayudar a niños, niñas y jóvenes más vulnerables, en colaboración con agentes educativos y de la juventud.

El objetivo del proyecto ha sido el refuerzo académico, la práctica oral del euskera y realizar otras actividades de ocio y deporte.

En cuanto a los datos, han participado 37 niños y niñas. Y personas voluntarias como docentes.

La coordinación general ha realizad a través del servicio municipal de euskera, y una vez iniciada la iniciativa, en colaboración con el Gazteleku. En general la iniciativa ha recibido valoraciones positivas.

Deba, 17 de septiembre de 2020